

**Bideoaren erreferentzia:** A1B08

**Maila:** A1

**Funtzioak:** Sentimenduak adieraztea eta egiaztatzea: zerbait gustukoa den galdetzea, adieraztea, jakinaraztea.

**Azken ekintza:** Eguneroko bizitza hobetzeko zer egin nahi duten, desio-multzo bat, erabakitzea guztien artean.

**Gramatika:** Nahiak galdetzen eta adierazten: Izena/Galdetzailea + (aditza) + aditz-lokuzioa: Zer ikasi nahi duzu? *Nik masterra ikasi nahi dut*

## 1- IKUSI AURRETIK



Erantzun askeko galdeketa bat bete dezatela. Galdeketa gero bideoan hizpide izango diren hainbat gairen ingurukoa izango da.








Erantzunei buruz hitz egin dezatela binaka. Hitz egiterakoan elkarrizketatxo bat sortuko denez, eredu bat eskaini elkarrizketa horrena.

## 2- IKUSI BITARTEAN



Ulermen-ariketa egin dezatela, eta gero erantzunak adostu. Galdera hauetako batzuk hurrengo fasean egingo dutenarekin daukate lotura, gero bizitzan “zer egin nahi duten”, horri buruz arituko baitira, eta gramatika ere “nahiak” nola adierazi ikasteko baliagarri izango baitute.

## 3- IKUSI ONDOREN

- Gramatika: Izena + (aditza) + nahi dut (aditz-lokuzioa): Nik masterra (lortu) nahi dut.
-   Nolako egoera halako nahia: egoera batzuk dituzte argazki bidez adierazita, eta hor txertatu beharko dituzte nahia adierazteko hainbat ideia; horretarako ideia-sorta bat eskaini zaie.
-   Aurreko ideiak edo beste batzuk erabiliz binaka desio-zerrenda bat osatu beharko dute galdera honi erantzunez: “Zure eguneroko bizitza hobetzeko zer egin nahi duzu?”. Binaka egite horretan elkarrizketa sortuko denez, elkarrizketa-adibide bat ematen zaie lagungarri.
-  Binaka egindakoa baliatuz eta elkarri entzunez guztien artean erabakiko dute ea gelan zein den eurek sortutako zerrenda horretan desio edo nahirik bitxiena.

## Transkripzioa

**AMAIA.** — Ia-ia 30 urte, eta oraindik ikasten!

**JOSU.** — Bai, bizitza osoa liburuen aurrean, neska.

**AMAIA.** — A zer belaunaldia...! 30 urte arte gurasoen etxean, ikasten eta dirurik ez!

**JOSU.** — Eta gero independentzia nahi dugu! Ja!

**AMAIA.** — Jajaja... Gaur egun, egoera ez da ona gazteentzat.

**JOSU.** — Noiz hasiko gara lanean!

**AMAIA.** — Aizu, ni lanean ibili naiz, baina ez oso gustura: musika enpresa batean egin dut lan.

**JOSU.** — Zer polita? Eta kexatu egiten zara?

**AMAIA.** — Polita? Enkarguak egin, kontratuen kopiak prestatu, telefonoz deitu... Oso aspergarria!

**JOSU.** — Horregatik hasi zara masterra egiten?

**AMAIA.** — Bai, nire komunikazio-bulegoa jarri nahi dut. Eta ez kafeak zerbitzatu nagusiei.

## ETENA

**JOSU.** — Ba nik zuretzat egingo dut lan.

**AMAIA.** — Horretarako egin behar duzu masterra?

**JOSU.** — Ez, baina nik ondo bizi nahi dut. Curriculuma hobetu nahi dut.

**AMAIA.** — Curriculuma hobetu?

**JOSU.** — Bai, eta lanpostu on bat lortu, hemen edo Kontxintxinan, berdin zait.

**AMAIA.** — Jajajaja, Josu, zu hemendik atera? Eta zer egingo duzu zure koadrilarik gabe?

**JOSU.** — Moldatuko naiz. Baina ezin dut jarraitu lanik egin gabe, beti amaren etxera: bazkaltzera, tupper bila...

**AMAIA.** — Jajaja, amazulo hori! Eta orain arte zertan ibili zara, ba?

**JOSU.** — Bueno, oso gutxitan egin dut lan, asteburuetan taberna batean, edo publizitatea banatzen, txakurrak paseatzen...

**AMAIA.** — Eta komunikazioan ezer ez?

**JOSU.** — Aizu, txakurrekin komunikatzea oso zaila da, e? Ez dute kasurik egiten... baina nire trikimailuak dauzkat...

**AMAIA.** — Baboa!

**JOSU.** — Ez, komunikazioan ezer ez, bizitza osoan ikasten... eta alferrik! Amaia, lana emango didazu?

**AMAIA.** — Alde hemendik!